

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Yeregi Aranalde

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1928-2009)*

Aurkibidea



Biografia



Yeregienea etxean, bere aitak 1912an eraikitako etxean, jaio zen 1928an. 12 anai-arreba ziren. 7 urterekin hasi zen eskolan. 12 urte zituela aitarekin hasi zen lanean ferratzaile- eta errementari-lanetan eta gau-eskoletara joaten zen lanetik irtendakoan. Urte asko aitarekin batera egin ostean, ferratze-lanak gutxitu zirenean, Gregorio anaia eta biak ibili ziren errementari-lanetan.

Zintak

BRS-004

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Diaz, Josu - Etxeberria, Eider

BRS-005

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Aurkezpena

- **Erref:** BRS-004/001
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Noiz eta non jaio zen azaltzen du. 1912an eraiki zen bere etxea. 12 anai-arreba ziren, eta 12 urterekin hasi zen aitarekin lanean.

Transkripzioa

- Zu Patxi ze egunetan jaiotakoa zara?
- Ni "seis de junio del veintiocho. Mil novecientos veintiocho"
- Orduan Esteban baiño urte bat zaharragoa, ezta?
- Bai.
- Eta hemen Berastegin bertan jaio ziñan?
- Hementxe, etxe hontan, hemen jaio ta hemen bizittu naiz ni beti.
- Nola dauka izena etxeak?
- Yeregienea.
- A bai! Orduan familiako etxea da.
- Bai, aittonak egiña. Aittona zanak ein zun. Aittona beterinarioa gendun guk ta harek ein zun "el año doce".
- A bai e?
- Bai, "docen" egindako etxea da hau, bai.
- Eta hamaika anai-arreba?
- Hamabi.
- Hamabi.
- Hamabi. Ni laugarrena senidetan naiz, ta ni hamabi urtekin hasi nintzen aittekin lanen, zeran, perratzen aitzen giñen behiek eta behorak eta perratzen, ta hoi perratzeke hamabi urtekin. Hasi bittarten morroiak eukitzen zittun mutilek, zeatzeko, laguntzeko aittek. Ta ya hamabi urte aillegatu nintzenen, ordun hasi nintzen. Geoztikan erabat hemen aittu naiz jubilatatu arte guztin.

2. Eskolan 12 urtera arte

- **Erref:** BRS-004/002
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:01:32. **Bukatu:** 00:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>12 urte izan arte, eskolara joan zen. Eta gerora, gaueko eskolara joaten zen. Orduan 7 urterekin hasten zen eskolan. Mutilak eta neskak aparte egoten ziren klasean. Gerraostean, ez zuten zorte handirik izan maisuekin.</p>

Transkripzioa

- Eta hamabi urtera arte eskolara ta joango ziñan, ez?
- Eskola hamabi urte arte bai, baiño hamabi urtetik aurrera gabeko eskola.
- A bai?
- Egunez lanean aitzen nitzen ta negun gabeko eskola ematen zigun [...] ta gabeko eskola. Eskolan ez genun asko ikasi, gogorik ez gendun ta, badakizu.
- Gabeko eskolan hasi aurretik hemen ibili ziñan plazan?
- Bai, herrin, bai, herrin.
- Zenbat urtekin hasi ziñan eskola?
- Eskolan? Ordun zazpi urtekin eo hasten zan. Bai, maisu, mutillentzako maisu bat izaten zan ta maistrantzako beste bat.
- Neskentzako?
- Neskantzako aparte beste maistra bat izaten zan, bai. Guk ez gendun

maisukin suerte handirik izandu; gerra ordun ni eskolan hasi ta belaxe hasi zan, ta maisu asko kanbiatu zizkiguen guri. Gure aurrekoak aittek eta hoik, hoik sekulako eskola hartu zuen, hemen maisu bat oso ona egokittu zitzaien, ta sekulako eskola eman zien. Baiño gu oso, urtebete ez zuen itten, kanbiatu itten zien maisuk asko ta ez gendun asko. Gogoa're gutxi ta, badakizu, geo maisuk'e halamouzkoak izaten giñun ta [...] hola...

3. Eskolatik kanpo pozik

- **Erref:** BRS-004/003
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan erdaraz izaten ziren. Eta beraiek erdaraz ez zekiten. Ez zuten denbora asko ematen eskolan, kanpoan gusturago egoten baitziren.

Transkripzioa

- Ta eskolak ze izaten zian euskaraz edo erdaraz?
- Bai, euskaraz.
- [Emakumea] Erderaz.
- Erderaz ordun.
- [Emakumea] Erderaz hitzik maisuk ez zekien euskeraz ta.
- Batzuk, erdaraz, izan bai ordun.
- Kanpotarrak izaten ziran?
- Bai, bai, kanpokoak, bai, kanpokoak. Erderaz ta guk erderaz ez genekin ta gero gutxi joan. Hola eskola gutxi hartu gendun guk oso.
- Gutxi joaten ziñeten ze etxian lanak egoten zialako edo bestela?
- E?
- Gutxi, denbora gutxi esan nahi duzu.
- Bai, bai, etxekoak bidaldutzen giñuen ahal dan guztin. Baiño baakizu, geo uda etortzen zanen izaten zan batzutan behien aurren ibili behar zendula besten ez dakit zer egin behar zendula. Hor aittonan ta osaban etxean joan behar izaten gendun, ta hemen auzotan'e bai askotan, ta haitan pozikio ibiltzen giñen gu zeatzen baiño eskolan baiño.
- Eskolan baiño?
- Bai. Guk eskola ikasi genduna gabeko eskola pixka bat ikasi gendun, eskola ez degu guk asko. Geo letzeko ta're afizio gutxi izandu dut nik beti, ez det hola afizioik izandu. Horrek'e asko itten du.

4. Gau-eskola

- **Erref:** BRS-004/004
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Gau-eskola herrian bertan ikasten zuen, udaletxean. Egunez umeekin

egoten zen maisuak ematen zien klase. Jende ugari joaten zen gau-eskolara. Han gehixeago ikasi zuten. Ez du gogoratzen maisuaren izena.</p>

Transkripzioa

- Ta gabeko eskolan hemen herrian bertan?
- Bai, bai, herrin bertan, bai.
- [EMAKUMEA] Udaletxen.
- Bai, bai, eskola egunez ematen zuen tokin bertan udaletxen.
- Eta hor maisua beti berdiña euki zendun edo?
- Zean zegona, egunez zegoena, egunez zegon maisue, umekin ta zegoan maisuek gaben ematen zun, harek ematen zun. Negu parten ematen zun e? Negun ba ez dakit zenbat hillebete, bost hillebete eo, sei eo, zean ematen ziun [...]. Ordun egunez ez baizan, gutxi joaten giñen, jende guztik lan ein behar izaten gendun. Mutil koskorrak ez zian oain bezela libratzen, batea ta bestea dana lanea. Ta horrengatik, badakizu, gaben ya lana librexeo nola izaten baitzan. Gaben koadrilla handia ibiltzen giñen e! Mutillek hamasei ta hamazazpi ta hemezortzi urte ia soldadu joan arteko mutillek izaten zien ta.
- Koadrilla orduan?
- Bai, ordun.
- Ta hor ya gehitxoago ikasi zenduten ez? Ya gau eskolan.
- Bai, gabeko eskola.
- Ze ikasten zenduen, matematika edo?
- Denatatiken zeozer, eskribitzen ta leetzen ta zeozer beñipin pixkat kontuk ateratzen ta hola zeozer, bai.
- Zein zan maisua edo zein...?
- [EMAKUMEA] Ez al zea akordatzan zer zun izena maisuk?
- Uf, ez, ez, ya memoria asko joan zait nei, ya oso memoria bajatzen ari zait.

5. Eskolako garaiko jolasak

- **Erref:** BRS-004/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolako garaian zertan jolasten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Akordatzan zara eskolan hemen plazan ibili ziñanean edo jolas orduan edo ze jolas egiten zenduten?
- Gu, guk, guk pelotan gutxi ibiltzen nintzen ni, bai. Ordun gordeketan ta holaxe; bestea tornike o ez dakit zer esaten giñun. Zea batzutan, ta holako zea batzutan. Baiño denbora gutxi izaten gendun guk e? Ez gendun.
- Hortxe eskolako denboran, ez?
- Eskolako denboran, bai ordun. Mutil koskorretan emakumek bezela kaniketan, kanike zea txiki batzuk izaten zien ta, kanikekin ta ta... Hola zeozer, hara ta honea, ahal dan bezela.
- Ta bestea, esan duzuna, tornike edo zelan izaten zan hori?

- Tornike, hoi torniken izaten zan, ba, kuadrillen zeatu ta bat gorde, gordeketa bezela, ta korrika bata besteakin zeon, ta hola, holako jolas klase bat zan.

- Ta kanikarik eta eukitzen zenduen?

- Bai, txikiten bai, mutil koskorretan izaten giñun.

- Erosita?

- Erosita. Erosita. Hor dendak bazien, ta dendatan ta eoten baizien, ta nolabaitte denbora pasatzeko, baakizu, hola zeatzeko.

- Eta bestela pelota, pelotan esan duzu gutxi. Ta futbola edo egiten zenuen orduan?

- Ez, futbolarik ez, ez, pelotan bai, pelotan ibiltzen zien. Nik ez nun hartako afizio handirik e, pilotarako ez nun. Ibili izandu nintzen behin eo beste hola pixka bat baiño asko ez. Ez nun pelotako ta afizioiken.

6. Behien aurrean lanean

- **Erref:** BRS-004/006
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserrietan non eta nola egiten zuten lan azaltzen du. Behien aurrean ibiltzeko umeak eskatzen zituzten gehienbat. Ume batek behien aurrean ez ibiltzeagatik egindakoa kontatzen dute.

Transkripzioa

- Eta esan duzu behien aurrean eta ibili behar izaten ziñatela...

- Bai, Jesus.

- Baiña zuek hemen ez zekazuen ez?

- Hemen ez, baiña auzoan han osaban etxen elizen ondoan bizittu zien aittoña ta osaba, ta haikin. Ta gero hemen auzo hotan, auzo hotan askotan zeatzen giñen.

- [EMAKUMEA] Honen etxen, honen etxen aittoña hau, aman aitte hau zuen, ta hau itsue ta honen semekin ta, han elizen ondoan, haik bai...

- Ta hemen ondoko baserri hota're bai. Gu koadrilla handia nola baigiñen gaztek hola giñenai deitzen zigun itzulen, udan, primabera parten beñipin bai, launtzeko bai, launtzeko bai. Baserritan asko ibili behar izaten gendun, garaie etortzen zanen, ba, baten ta besten, hola. Ordun zelai hok denak laboreak izaten zien; oain belar daude, baiña dena behiekin eitten zan, ta behien aurren ibiltzeko umek nahi izaten zittuen, ta hemen ume asko nola nola baigiñen, baten batea ta besten bestea, ta garaien beti izaten gendun.

- [EMAKUMEA] Felik esaten o, baserri batea jun omen zan, ta ez omen zun ibili nahi haik behiekin, ta sekuleko tripeko miñe jarri zitzaiola, Eibarko estankon bizi danak, sekuleko tripeko miñe jarri zitzaiola, ta gaixo zegola, ta negarrez jarri omen zan, ta etxea...

- Behien aurrean ez ibiltzeagatik?

- Ez ibiltzeagatiken. Bai, bai, ordun etxe askotan ibili behar izaten genun guk hemen e? Bai, etxe askotan ibiltzen giñen. Ordun denatan baserri

hoitan denatan nola zien behiek, ta denatan laborea asko eitten zuen, ta bea famili ttikiago, bea handiago bazuen ba umek hola zeben tokitatiken deitzen zigurean...

7. Eskolari emandako garrantzia denboran zehar

- **Erref:** BRS-004/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:44. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Lehen eskolari garrantzi gutxiago ematen zitzaion. Gehienbat mutilek egiten zuten piper, lan egiteko. Mutilek zorte txarra izan zuten irakasleekin, gutxi ikasten zuten. Gau-eskolan gogo gehiago jarri zioten, beharra sentitzen zutelako.</p>

8. Etxearen banaketa lehen eta orain

- **Erref:** BRS-004/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>12 urterekin aitari laguntzen hasi zitzaion. Ferratokia etxean bertan zegoen. Etxea nola aldatu duten azaltzen dute, eta argazkia erakusten dute.</p>

9. Aitona eta aitaren lanbideak

- **Erref:** BRS-004/009
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:12:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Aitona al baitaria zuen, Betelutik etorritakoa. Aita ferratzaile eta errementaria izan zen. Berrobira jaisten ziren batzuetan ferratzera.</p>

10. Nola ferratzen zituzten abereak

- **Erref:** BRS-004/011
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:14:34. **Bukatu:** 00:15:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Behia nola ferratzen zuten azaltzen du. Abereak, ordea, kanpoan ferratzen zituzten, desberdin. Orain ere horrela ferratzen direla esaten du.</p>
<p>

11. Ferratzaile-lanaren bilakaera

- **Erref:** BRS-004/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:15:41. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Baserritarrek ekartzen zituzten abereak ferratzeko. Lana gutxitzen hasi zenean, berak joan behar izaten zuen baserrietara, eta zer-nolako lanak egiten zituen orduan azaltzen du.</p>

12. Baserritarrak urrutitik etortzen

- **Erref:** BRS-004/014
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:17:21. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Baserritarrak urrutitik etortzen ziren beregana, pazientzia gehiago zutelako. Abereak kanpoan egoten ziren, lotuta.</p>

13. Ferratzen zenbat denbora pasatzen zuen

- **Erref:** BRS-004/015
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:19:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Ferratzen ordu erdi pasatxo ematen zuten. Abere bakoitzak zenbat ferra izaten zituen azaltzen du.</p>

14. Ferra motak abere bakoitzaren arabera

- **Erref:** BRS-004/016
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:19:14. **Bukatu:** 00:20:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Abereen ferrak beraiek egiten zituzten. Baina abereen txapak ekarri eta moldatu egiten zituzten. Ferra desberdinak erakusten ditu liburuan. Zaldiak, behiak, mandoak... ferratzen ziren.</p>

15. Mandazainak eta astoak

- **Erref:** BRS-004/017
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:20:43. **Bukatu:** 00:21:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Mandazainek zer lan egiten zuten azaltzen du. Asto asko ez zeuden orduan, baina izaten ziren. Atzazalak ere zuzentzen zizkieten astoei.</p>

16. Ferratokiko tresnak

- **Erref:** BRS-004/018
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:21:47. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Atzazalak zuzentzeko zer tresna erabiltzen zituzten deskribatzen du. Ferratokiko beste hainbat tresna ere aipatzen ditu. Sutegia harrikatzarekin erabiltzen zuten.</p>

17. Bestelako lanak ferratzailez gain

- **Erref:** BRS-004/020
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:23:39. **Bukatu:** 00:24:58

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Lanik ez zeukatenean, errementariak izan ohi ziren, eta beste hainbat gauza egiten zituzten.</p>

18. Gurpilak egiteko prozesua eta beste lan batzuk

- **Erref:** BRS-004/021
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:26:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Beste lanetarako materiala Donostiatik ekartzen zuten. Gurpiletarako burdina nola egiten zuten azaltzen du. Gurpiletarako iltzeak bertan egiten zituzten. Arotzarekin batera egiten zuten lan gurpilak egiteko. Basoko zuhaitzak ekartzen zituzten idientzako ere kateak egiten zituzten.</p>

19. Egunero lanean

- **Erref:** BRS-004/022
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:26:34. **Bukatu:** 00:27:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Euskara » Lexikoa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Egun osoan edukitzen zuten lana. Asteburuetan ere lan egiten zuten. Aita eta bera bakarrik moldatzen ziren lanean.</p>

20. Lanik gehiena ferrak prestatzen

- **Erref:** BRS-004/025
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:30:43. **Bukatu:** 00:31:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Lanik gehiena ferrak prestatzen izaten zen.</p>

21. Arrea eta laiaren funtzioa

- **Erref:** BRS-004/026
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:31:16. **Bukatu:** 00:33:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Arrea ere egiten zuten: nolakoa zen eta zertarako balio zuen azaltzen du. Laiak zertarako erabiltzen ziren deskribatzen du. Garia eta artoa biltzen zen. Patata gutxi, baina babarruna bai. Baba beltza ere landatzen zen.</p>

22. Garai hartako soldatak eta prezioak

- **Erref:** BRS-004/028
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:35:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Zerk merketzen eta garestitzen zuen ferrak jartzea azaltzen du. Garai hartarako ez zen merkea ferrak jartzea. Beste gizon baten zenbateko jorna zuen aipatzen du. Beren prezioei buruz hitz egiten du.</p>

23. Nola ordaindu ferratzea, eta nola ekarri animaliak ferratokira

- **Erref:** BRS-004/030
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:35:51. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Dirutan ordaintzen zen, eta dirurik ez zutenean, apuntatu egiten zen izaten zuenerako. Abereak ferratokira oinez ekartzen zituzten mendiz. Orduko bideak txarrak ziren, baina jendea ohituta zegoen. Gerora, kamioietan ekartzen hasi ziren.</p>

24. Ferratze-lanaren gainbehera

- **Erref:** BRS-004/031
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:38:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Traktorea iristean, lana gutxitu zen. Orduan, esne-behiak gehiagotu ziren, eta haiek ez ziren ferratu beharrik. 70eko hamarkada inguruan izan zen hori. Aita hil, eta anaia sartu zenean lanean, kanpoko lanak egiten hasi ziren.</p>

25. Aisialdian erromeriara

- **Erref:** BRS-004/033
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:38:52. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Igande arratsaldetan bakarrik egin ahal izaten zuten jai, baina orduan ere lan egiten zuten. Baina libre izaten zuenean, erromeriara joaten ziren. Pedrok instrumenturen bat jotzen zuen, eta gazteak biltzen ziren dantzan egiteko.

26. Udaletxeko erlojua

- **Erref:** BRS-004/034
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Herriko udaletxeko erlojuari pisuak altxatu behar izaten zitzaizkion lau egunetik behin. Oso astuna zen hura. Aitonak-eta jarri zuten erloju hori, baina dagoeneko ez dago. Bere ardura izaten zen erlojua. Zenbat diru ematen zioten horregatik aipatzen du.</p>

27. Kanpaien bidezko hizkuntza

- **Erref:** BRS-004/035
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:41:58. **Bukatu:** 00:44:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpaiak oso noizean behin jo behar izaten zituzten. Gainerakoan, udaletxeko erlojuak automatikoki jotzen zituen. Sua zenean, udaletxean jotzen

ziren kanpaiak; baina, bestela, elizan. Oraindik ere jotzen dituzten elizako kanpaiak. Kanpai motak zer ezaugarri zituzten azaltzen dute. Orain, gutxi jotzen dira horrelako kanpaiak. Sua zeneko kanpaiak nolakoak ziren aipatzen du.

28. Basoak eta suteak

- **Erref:** BRS-004/036
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:44:44. **Bukatu:** 00:45:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Sute gutxi izaten ziren lehen, basoak garbiago baitzeuden. Inguruko basoetan zer zuhaitz mota dagoen azaltzen du.

29. Abere eta soroen bilakaera

- **Erref:** BRS-004/037
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:45:54. **Bukatu:** 00:46:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lehen behi asko eta ardi gutxi izaten ziren. Orain, ordea, alderantziz da. Soroak ere galdu dira, dena belarra baitago.

30. Aurrerapen teknologikoak

- **Erref:** BRS-004/038
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:46:48. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Etxean argia eta ura beti ezagutu izan ditu. Baina baserri askotan ez zegoen. Batzuk komunik ere ez zuten. Haiek nola moldatzen ziren aipatzen du. Telefonorik ez zegoen, plazan izan ezik. Herriko telefono bakarra zen.</p>

31. Tolosarako autobusa Berastegin

- **Erref:** BRS-004/039
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Autobus bat egoten zen Tolosara joateko. Joera handiagoa egon izan da Tolosara, Leitza aldera baino. Baserritarrak ere Tolosarako feriara joaten ziren astelehenetan.

32. Trena Berastegin

- **Erref:** BRS-004/040
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:48:58. **Bukatu:** 00:50:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trena lehen pasatzen zen. Betidanik ezagutu izan du hori. Jende gutxi ibiltzen zen, baina Donostiatik Iruñera joaten zen trena. Non hartzen zuten trena azaltzen dute. Iruñera joateko bakarrik hartzen zuten trena. Bestela, oinez edo autobusez. Lehen

33. Inguruko herrietara jaietara bizikletaz

- **Erref:** BRS-004/042
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:50:56. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Bizikletaz joaten zen bera. Oso bizikleta gutxi zeuden orduan herrian. Normalean Areso eta Elduainera. Tolosara ez ziren joaten.

34. Neskatan

- **Erref:** BRS-004/043
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Leitzara gerora joaten zen, emaztea hangoa baitzen. Emaztea ezkontza batean ezagutu zuen. Neska-laguntzea nola izaten zen azaltzen du.

35. Dantza lotua eta horrengatiko zigorrak

- **Erref:** BRS-004/044
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Dantza soltea egiten zuten. Dantza lotua debekatu egiten zuten apaizek. Neskak nola zigortzen zituzten dantza lotua eginez gero azaltzen du. Apaiz zorrotz bat aipatzen du. Zigortzeko/Saritzeko medailari buruzko kontuak kontatzen ditu.

36. Erlijioaren indarra lehen eta orain

- **Erref:** BRS-004/045
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:56:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Lehen mezara denak joaten ziren igandetan. Eta joaten ez zenari seinالات egiten zioten. Hiru meza izaten ziren goizean. Herri baterako hiru apaiz izatetik, apaiz bat lau herritarako izatera pasa da. Dotrina nahitaez joan behar izaten zuten.</p>

37. Sorginak auzoan

- **Erref:** BRS-004/048
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:58:37. **Bukatu:** 00:59:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Sorginak izan omen ziren auzoan. Baina azkenean semearen gaiztakeria izan zen.</p>

Transkripzioa

- Ta hemen bestela holan, sorgin konturik eta entzun izan dozue? Gurasoeri eta?
- Bai, sorgiñek izan izandu die, hementxe auzoan. Hor badao etxe zahar,

txabola zahar bat. Ta hor zien aitton-amona batzuk bizitzen zien. Ta zuen mutille gazte bat, seme bat, hola tipo hoitakua zan. Ta harek itten zien sekulako sorginkerik itten zizkien hairi. Harri koskorrak bota ta, tximinitik zea bota ta... sorgiña zala, ta haik ibiltzen zien sekulako komeritan, hor ibiltzen zien. Ta eun baten holaxe ikeatu seko, bi zaharrak zien, ta gure aitte zanaï esan zien. Ta hoyek ez deikela izan, ta aitta juan ta seittun harrapatu zien, nola botatzen zizkion, ta ordun zeatu zan geo “Sorgiña” esaten zien.

- Eurak pentsatzen zaben sorgiña zala?

- Bai, beak bai.

- Ta zein zan, semia?

- Semea!

- A bai?

- Semea, zeatzen ziena, gaiztakerik itten zizkiena.

- Ta gurasoak bildurtuta?

- Hombre, oso ikeatuta e! Seko ikeatuta. Tximinitiken harri koskorrak eta botata, ta beste aldea gaiñea, bi zaharrak, ta haiei aixa botatzen zizkien, zeudela diximuloan. Ta bestek sorgiñek diela ta hola. Zelebre hoitakoa zan e? Semea, mutille, oso zelebrea zan.

38. Gazteen gaiztakeriak

- **Erref:** BRS-004/050
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:00:31. **Bukatu:** 01:01:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gazte-kuadrillak, mozkortuta, jai berezietan egindako gaiztakeriak kontatzen ditu.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com